

MOZIO ARRUNTA,
MARTUTENE BARKAIZTEGIREKIN LOTZEKO
TRENBIDE GAINKO OINEZKOEN PASABIDEARI BURUZKOA ETA
BERTAN SORTUTAKO BESTE ARAZOEI IRTENBIDE BAT EMATEKO BURUZKOA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Juan Carlos Izagirre Hortelano, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Martutene Barkaiztegirekin lotzeko trenbide gaineko oinezkoen pasabideari buruz eta bertan sortutako beste arazoei irtenbide bat emateko buruz.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko maiatzean itxi zen Martutene Pasabidetik Barkaiztegira doan errepidea, ADIFek trenaren pasagunean egin behar dituen obrak direla eta. Udaletxearekin sinatutako hitzarmenak, lehen fase bat jasotzen zuen sortzen zen trafikoa-arazoari behin-behineko soluzioa planteatzeko, eta bigarren fasea bi urtetako epean, behin betiko soluzioa nolakoa izango zen zehazten zuena.

Orduz geroztik, trafiko arazotik haratago oinezkoentzako arazo larria sortu da, Barkaiztegi eta Martutene arteko lotura oso luzea, iluna eta arriskutsua baita. Ibilgailuekin partekatu behar dute errepide eskas bat, espaloï eta argirik gabe, eta gainera, buelta oso handia egin behar dute alde batetik bestera. Hau gutxi balitz, arazoari bertan bizi diren herritar asko adinekoak direla gehitzen zaio.

2021eko azaroan Udal Gobernuak onartu zuen honi soluzioa emateko trenbide gaineko pasabidea egiteko azterketa egitea. Alkatearen hitzetan “urte bete eta zerbaitetan” egina egongo zen pasabide hau. Gaur, pasabidearen berririk ez daukagu oraindik.

Egoera honen aurrean bertako auzotarrek bere kezka adierazi digute behin eta berriz, eta arazoa hainbatetan salatu dute publikoki eta Udaletxeko ordezkariei, baina oraindik ez da konponbiderik eman.

2025eko Otsaileko Osoko Bilkuran oinezkoen pasabidea trenaren pasagune berria egiteko obrarekin batera egingo zela esan zen, ez dela aurreikusten oinezkoentzako trenbide gaineko pasabiderik aurretik egitea, eta hauek ez dira 2026a baino lehenago hasiko.

Bertan bizi diren auzotarrei bi lan hauek modu independentean egingo zirela esan zitzaïen, eta 2022rako oinezkoen pasabidea egina egongo zela. Beste obra, pasabidearena, beranduago egingo zela.

Beste aldetik, ADIFekin sinatutako hitzarmenean esaten da lehen fasean trafikoari behin-behineko irtenbidea emango zitzaïola, baina arazoak sortu dira tamaina handiko ibilgailuak bertatik pasa behar dutenean, honek duen ondorio larriekin hainbat bizilagunentzat.

Urgentziazko gaia dela deritzogu, ez baita onargarria Barkaiztegitik Martutenera joateko 30 minutuko ibilbidea egin behar izatea bide arriskutsu batetik. Ez eta Kamioiak eta antzekoak bide alternatibo horietatik ezin ibili ahal izatea, beste aukerak ezinezkoak edo askoz luzeagoak direlako.

Kontutan edukita, Osoko Batzar horretan Alkateak esan zuela, obra ADIFen ardura dela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio ADIFI Barkaiztegi eta Martutene lotzeko aurreikusitako trenbide gaineko pasabidea berehala egin dezala, obraren lehen faseko parte bezala.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio ADIFI, oinezkoen tren gaineko pasabidea eta trenaren pasabide berria egin arte, oinezkoen eta bizilagunen arazoei irtenbidea ematea, Udaletxearekin eta bizilagunekin adostuz hartu beharreko neurriak.

Donostian, 2025eko martxoaren 07an

Juan Carlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldearen bozeramailea